

URBIDE ARABAKO UR PARTZUERGOA-CONSORCIO DE AGUAS DE ÁLAVA MEMORIA – 2019KO EKITALDIA

1. OHARRA.- JARDUERA ETA ANTOLAKETA

Erakundea sortzeko eta arautzeko arauak

I.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak aitortzen du gure lurralde historikoen araubide berezia eta haien autoantolaketa ahala (xedapen gehigarrietatik bigarrena).

Era berean, partzuergoak arautzen dituzte Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 118. artikuluan eta hurrengoetan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Eusko Legebiltzarraren apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 104. artikuluan eta hurrengoetan.

II.- Uraren ziklo integralari dagokionez, Arabako Foru Aldundiak eskumen hauek ditu, besteak beste: udalerrien arteko berdintasun, elkartasun eta oreka printzipioak beteko direla bermatzea, zerbitzu publikoak lurralde osoan eta modu egokian emango direla ziurtatzeko (apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 4.2.d eta 43.1.e artikulua eta 7/1985 Legearen 26. eta 31. artikulua); bere gain hartzea toki erakundeei laguntzeko eta haiekin lankidetzan eta koordinatuta aritzeko eskumena, hala egitea merezi dutenekin, eta beti erabateko elkarlanean haiekin (7/1985 Legearen 28. artikulua eta hurrengoak); kudeaketa hobea egiteko tresnak koordinatzea eta bultzatzea, bermatuz eraginkortasunez eta modu jasangarrian emango dela zerbitzua eta, nagusiki, kudeaketa partekatua bidez (38/2012 Foru Arauaren 2. artikulua); eta lurralde osoan ezarritako esparruan zerbitzuaren benetako kostua kalkulatzeko irizpideak ezartzea eta haien ezarpena kontrolatzea (38/2013 Foru Arauaren 2. artikulua).

III.- 2000/60/EE Uraren Esparru Zuzentarauaren barruan, Plan Hidrologikoen Berrikuspena onesten duen urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuak (BOE, 16. zk., 2016ko urtarrilaren 19koa) 65. artikuluan xedatzen duenez, administrazio eskudunek hornidura eta saneamendu sistemen kudeaketa osoaren alde egingo dute, eta sustatuko dute honako hauek egiteko gaitasuna izango duten udalerriaz gaindiko

kudeaketa egiturak sortzea eta haiei eustea: sareen etekinik onena bermatu, kudeaketa profesionalizatua duen zerbitzua eman eta uraren zerbitzuen kostuak eraginkortasunik handienarekin berreskuratzea jo.

IV.- Arabako Lurralde Historikoa hainbat udalerri eta kontzejuk osatzen dutenez, eta haietako asko biztanle gutxiko herriguneak direnez, iraganean komenigarritzat jo zen sustatzea toki erakunde gehienak bilduko zituzten partzuergoak sortzea, erakunde bakoitzari dagokion autonomia ahaztu gabe, jakina. Horri esker, errazago zen ziklo integralaren zerbitzua emateko ezarritako lege esparrua betetzea, bai eta herritarrek eskatutako zerbitzuak emango zirela bermatzea ere.

V.- Troperagaingo Ur Partzuergoaren Batzar Orokorrak, 2018ko azaroaren 26an egindako bileran, erabaki zuen partzuergoari izena aldatu eta "Arabako Ur Partzuergoa – Consorcio de Aguas de Álava" jartzea eta estatutuak ere aldatzea, zeinak 2019ko urtarrilaren 4ko ALHAOn (2. zk.) argitaratu baitziren.

Aldatutako estatutuek 3.4. artikuluan jasotzen dute, besteak beste, partzuergoa Arabako Foru Aldundiari atxikiko zaiola legez ezarritako ondorioetarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak eta Eusko Legebiltzarraren apirilaren 7ko 2/2016 Legeak xedatutakoa aplikatuz.

Arabako Foru Aldundiak "Hornidura eta Saneamenduko 2016-2026 Plan Zuzentzailea"ren barruan Arabako Lurralde Historikoko uraren zikloaren kudeaketari buruz egindako diagnostikoaren emaitza da Urbide Arabako Ur Partzuergoaren sorrera. Hartan ondorioztatzen da beste kudeaketa eredu bat bultzatu beharra dagoela, zeinak lagundu beharko baitu ezarritako lege esparrua betetzen, hartara aurrerapauso bat emateko lurraldean ematen diren uraren ziklo integraleko zerbitzuak berrantolatzeke, haiek eraginkorrago egiteko eta maila guztietan bermatzeko bidean.

Partzuergoa sortu zen premia zegoelako lurralde kohesioa, elkartasuna eta oreka lortzeko, uraren ziklo integraleko zerbitzuak emateari eta prestazio horrengatik ordaindu beharreko kostuari dagokienez.

VI.- Partzuergoaren lurralde eremua izango da unean-unean hura osatzen duten kontzejuena, partzuergoak ematen duen zerbitzuaren hartzaile edo onuradun badira, bai eta partzuergoaren zerbitzua ematen duten udalen udal mugartea ere, bi kasuetan, Arabako Lurralde Historikoaren barruan.

Partzuergoan kide berriak sartzeko erabakia batzar orokorrak hartu behar du, eta hark ezartzen ditu sartzeko baldintza orokorrak. Haietako bat da hornidura eta saneamendu sareen eraginpeko edo haiei loturiko ondasunak edo eskubideak Partzuergoari eskualdatzea, aurrez inbentario xehatua eginda, eta, beraz, Partzuergoaren ardura izango da haiek mantendu, kontserbatu eta ustiatzea.

2019ko abenduaren 31n, Arabako Lurralde Historikoko 76 erakunde eta Arabako Foru Aldundia dira partzuergoko kideak.

Nolanahi ere, 2019ko urtarrilaren 15eko batzar orokorrean erabaki zen trantsizio aldi bat ezartzea, aldi horretan Partzuergoak pixkanaka bere gain hartu eta gauza zitzan zegozkion egitekoak eta zerbitzuak. Trantsizio aldi horrek ekarri duena da 2019an goi horniduraren zerbitzua eman zaiela lehendik Troperagaingo Partzuergoko kide zirenei bakarrik, alegia, 9 erakunderi.

Erakundearen jardura nagusia eta haren lege, ekonomia eta finantza eta kontratazio araubidea

Partzuergoaren helburuak honako hauek dira: ur hornidurako eta saneamenduko zerbitzu publikoen azpiegitura ezartzea eta ustiatzea, esanahirik zabalenean, eta hori guztia baldintza egokietan eginda eta indarrean dagoen legeria betez.

Partzuergoak uraren ziklo integralari zuzenean lotutako zerbitzuak ematen ditu alderdi hauei dagokienez:

a.- Ur hornidurari doazkion zerbitzuak, hau da, “adukzio” zerbitzuak (edo lehen mailako sareari lotutakoak) eta “banaketa” zerbitzuak (edo bigarren mailako sareari lotutako hornidura zerbitzuak).

a.1)- Ur hornidura lehen mailako sarean, uraren goi hornidura edo adukzio zerbitzua: ura hartzea eta biltzea, garraiatzea, tratatzea eta bideratzea azken erabiltzaile handietaraino edo banaketa sareko andel edo tangetaraino.

a.2)- Ur hornidura bigarren mailako sarean, uraren behe hornidura edo banaketa zerbitzua: lehen mailako sarean hornitutako ura andeletan biltzea eta

banatzea azken erabiltzaileen instalazio pribatuekin (etxebizitzak, saltokiak, industriak eta gainerako establezimenduak) lotuta dauden hodien bidez.

b.- Saneamenduari dagozkion zerbitzuak, besteak beste, "intertzeptazioa/arazketa" (saneamendua lehen mailako sarean) eta "estolda sarea" (saneamendua bigarren mailako sarean).

b.1)- Saneamendua lehen mailako sarean edo intertzeptazio eta arazketa zerbitzuak: kolektore eta hodi biltzaile nagusiak (hots, estolda sarea hondakin uren araztegiekin lotzen dituztenak), arazketa sistemak (ura arazteko eta hondakinak kentzeko instalazio guztiak aintzat hartuta), eta hustubideak (araztutako ura ur ingurune hartzailera itzultzen dutenak).

b.2)- Saneamendua bigarren mailako sarean edo estolda sarea: etxeko eta industriako hondakin urak eta euri ura jasotzen ditu etxeetako zein industrietako lotuneetatik edo estolda zulo eta hustulekueetatik eta lehen mailako saneamendu sarean isurtzen ditu edo, hala badagokio, ur ingurune naturalean isurtzen ditu.

Partzuergoak erakundeei, pertsona fisikoei eta pertsona juridikoei ere eman ahalko die zerbitzua, nahiz eta partzuergoko kide ez izan, edo, partzuergoko kide izan arren, haiek Partzuergoari kudeatzeko eskualdatutako zerbitzuez kanpokoak jasotzeko, betiere hitzartutako zerbitzuak partzuergoa osatzen duten erakundeetako erabiltzaileentzat behar bezala eta eraginkortasunez beteko direla aurretiaz bermatzen bada.

Hala ere, onetsitako trantsizio aldia dela eta, 2019an goi horniduraren zerbitzua eman zaie lehendik Troperagaingo Ur Partzuergoko kide ziren erakundeei bakarrik.

Urbide Arabako Ur Partzuergoak 2019an eta hurrengo urteetan sendotze prozesua dauka aurrean, bai uraren zikloko zerbitzuak benetan emateari dagokionez, bai kide berriak benetan txertatzeari dagokionez, baita etorkizunean partzuergokide izan daitezkeenak ere.

Horretarako, konpromiso horiek bete ahal izateko jarduketa egokiak egiten ari da. Besteak beste, 2019an, honako azterlan eta egiteko hauek egiten hasi da, Partzuergoak eskura ditzan kide diren erakundeei eta harpidedunei zerbitzuak emateko behar dituen antolaketa elementuak, hala nola materiala eta langileak, kontabilitatea, aurrekontuak, tributuak eta administrazio arloa antolatzeak:

- Zehaztea Partzuergoko kide diren erakundeei zerbitzua emateko behar den antolaketa egitura tekniko administratiboa.
- Identifikatzea Partzuergoaren beraren aktiboak eta/edo atxikiak edo Partzuergoa osatzen duten erakundeei lagatakoak.
- Partzuergoko kide den erakunde bakoitzari emandako zerbitzuaren ezaugarriak, hedadura eta irismena.
- Zerbitzuaren eta Partzuergoaren aurrekontua.
- Prestazioaren kostuaren azterketa ekonomikoa eta tarifen proposamena.
- Onetsi beharreko ordenantzen eredua.
- Beste erakunde batzuekin sinatu beharreko hitzarmen proposamenak.
- Laguntza ematea atxikitako erakundeei, une horretara arte kide ziren partzuergotik irteteko prozesuan.

Partzuergoaren sozietate egoitza Ribabellosan (Araba) dago, Foru plazako 11 zenbakian.

Partzuergoaren estatutuetan zehaztu da Arabako Foru Aldundiari atxikitzen zaiola, horrek aurrekontu araubidean, kontabilitatean eta foru erakunde horrek gauzatu beharreko kontrolari dagokionez dakarren guztiarekin.

Antolaketa eta funtzionamendua foru partzuergoen araubide juridikoa arautzen duen foru araudiak eta estatutuek arautuko dute.

Administrazio ahalmenak erabiltzean, dagokion foru araudia ez ezik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea edo hura ordezkatzuko duena ere bete beharko da.

Foru Partzuergoaren kudeaketan urteko aurrekontu araudia bete beharko da, eta Batzar Nagusiei dagokie hura onestea. Aurrekontuen egitura (sarreraren eta gastuen sailkapena, xehetasun maila eta haien gauzatzea eta likidazioa) bat dator Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Araubideko arauarekin eta erregelekin, eta batik bat Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontu araubidearen abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak ezartzen duenarekin.

Horri lotuta, adierazi behar da, estatutuak aldatu ziren arte, Partzuergoa Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru

Arauk xedatutakoak arautzen zuela. Beraz, 2019an, aurrekontua onetsita zegoenez araudi horretan ezarritakoari jarraituz, hartan xedatutakoa bete da aurrekontua betearazi eta likidatzeari dagokienez ere.

2019an estatutuak aldatu zirenez geroztik, Partzuergoaren ekonomia eta finantza araubidea Foru Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra onesten duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 18ko 75/2012 Dekretuak ezarritakoa da.

Kontratazio araubidea arautzen duen lege esparrua, 2018ko martxoaren 9tik aurrera, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea da (egun horretara arte, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua).

Diru sarrerren iturri nagusien deskribapena

Gaur egun, erakundearen baliabide iturri nagusiak dira, batetik, lehendik Troperagaingo Ur Partzuergoko kide ziren erakundeei goi horniduraren zerbitzuak emateari esker lotutako diru sarrerak eta, bestetik, Arabako Foru Aldundiak emandako dirulaguntza 2019ko ekainaren 3an sinatutako hitzarmena betez, zeinaren xedea baitzen oinarriak ezartzea Arabako Foru Aldundiaren eta Partzuergoaren arteko lankidetzak tekniko eta finantzariarako, Partzuergoa bultzatu eta egitura berrira egokitu dadin eta bere zerbitzuak jasotzen dituzten erakundeen kopurua handitu dadin.

Erakundearen izaera fiskala

Partzuergoak Arabako Foru Ogasunari aitortzen eta ordaintzen dizkio pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagozkion zenbateko atxikiak, bai eta balio erantsiaren gaineko zerga dela-eta jasandako eta jasanarazitako zenbatekoak ere. Salbuetsita dago sozietateen gaineko zergatik.

Indarrean dagoen legeriaren arabera, zergak ezin daitezke eman behin betiko likidatutzat harik eta zerga agintariak aitorpenak ikuskatu arte edo preskripzio epealdia pasatu arte. 2019ko abenduaren 31n, Partzuergoak zabalik dauzka, zerga agintariak ikuskatzeko, aplikagarriak zaizkion zerga nagusi guztiak, legez preskribatu gabeko ekitaldietakoak.

Oinarrizko antolaketa egitura

Hona hemen Partzuergoko gobernu eta administrazio organoak: batzar orokorra, gobernu batzordea, lurralde batzordeak, lehendakaria, lehendakariordea eta zuzendari-kudeatzailea.

Batzar orokorra da Partzuergoaren gobernu eta administrazio organo gorena, eta partzuergoko kide diren erakundeek izendatutako ordezkari banak osatzen dute.

Gobernu batzordea osatzen dute lurralde batzordeetako lehendakariak, partzuergoko lehendakariak eta lehendakariordeak eta Arabako Foru Aldundiak unean-unean izendatutako hiru ordezkariak.

Lurralde batzordeak aztertu, kontsultatu eta irizpenak ematen dituzte gobernu batzordeak eta batzar orokorrak hartutako erabaki proposamenen gainean, eta kide hauek osatzen dituzte: kasuan kasuko lurraldean partzuergoko kide diren toki erakundeek ordezkari banak eta Arabako Foru Aldundiaren ordezkari batek. Gaur egun, lurralde batzorde hauek daude: Añanakoa, Arabako Mendialdekoa, Arabako Lautadakoa eta Gorbeialdekoa.

Batez besteko langile kopurua ekitaldian zehar eta abenduaren 31n:

Batez besteko langile kopurua ekitaldian zehar eta abenduaren 31n: langile bat.

Gaur egun, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailaren mendeko legelari batek egiten ditu idazkaritza eginkizunak eta Arabako Foru Aldundiarekiko koordinazio lana.

2. OHARRA.- URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

2.1) Irudi zehatza

a) Informazioaren betekizunak

Urteko kontuak Partzuergoaren kontabilitate erregistroetatik lortzen dira, eurotan adierazten dira eta 2019ko ekitaldikoak dira lehenak Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra (aurrerantzean, KPPO) onesten duen Arabako Foru Aldundiaren abenduaren

18ko 75/2012 Foru Dekretuak ezarritakoarekin bat etorritik egindakoak. Haien xedea da honako hauen irudi zehatza erakustea: 2019ko abenduaren 31ra arteko finantza egoera eta ondarea, ekonomia eta ondare arloko emaitza, ondare garbian izandako aldaketak, eskudiru fluxuak eta aurrekontua betearaztearen emaitza; hain zuzen, egun horretan amaitutako ekitaldiari dagozkionak.

2018ko ekitaldira arte, Partzuergoak bere kontuak egiten zituen bat etorritik ALHko toki erakundearen kontabilitatearen arau esparrua onesten duen Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 3ko 56/2015 Foru Dekretuak ezarritakoarekin.

2018ko abenduaren 31n amaitu zen urteko ekitaldiaren urteko kontuak 2019ko ekainaren 27an onetsi zituen batzar orokorrak. 2019ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak onesteke daude oraindik, baina aurreikusten da aldaketarik egin gabe onetsiko direla.

b) Kontabilitateko printzipioak:

Urteko kontu hauek egitean memoriako 3. oharrean laburbiltzen diren kontabilitate printzipio eta arauak aplikatu dira. Ondarean, finantza egoeran eta emaitzetan eragina duten nahitaezko kontabilitate printzipio guztiak aplikatu dira urteko kontu hauek egiteko.

2.2)- Informazioa alderatzea

Nahiz eta ekitaldi honetan aplikatu den lehenbizikoz Foru Kontabilitate Plana, alderatuak izan daitezten, ekitaldiko zenbatekoez gain, aurreko ekitaldiko zenbatekoak aurkezten dira, eta, haiekin batera, balantzeko partidak, ekonomia eta ondare arloko emaitzaren kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera, eskudiru fluxuen egoera eta memoria; izan ere, ez dago alderik Arabako toki erakundeei aplikatzekoa zaien planaren eta foru kontabilitate planaren artean.

Hala ere, 2019ko ekitaldiko urteko kontuetan doiketa batzuk egin dira, 2018ko ekitaldian sortutako diru sarrera eta gastuen ondorioz, eta doiketa egin da erakundeari atxikitako ibilgetuan eta haren amortizazio metatuan ere. Hori dela eta, zifrak egokitu egin dira, errazago alderatzeko. Hona hemen ondare garbian, ibilgetu materialean, egindako doiketaren xehetasunak:

Ondare garbia	(euroak)
Emaizta 2018.12.31n	-97.655,34
Sortutako gastuak	-4.755,71
Gastu aurreratuak	3.242,80
Sortutako diru sarrerak	27.407,52
Amortizatzeko zuzkiduraren erregularizazioa	-8.641,95
2018.12.31ko emaitza doitua	-80.402,68
Ondare atxikia 2018.12.31n	0,00
ibilgetuaren erregularizazioa	3.557.101,96
Ondare atxiki doitua 2018.12.31n	3.557.101,96
2018.12.31 aurreko ekitaldietako emaitzak	2.614.753,94
Ibilgetuaren erregularizazioa eta ondare atxikira birsailk.	-3.167.082,71
2018.12.31 aurreko ekitaldietako emaitza doituak	-552.328,77

Ibilgetu materiala	(euroak)
Ibilgetu materiala 2018.12.31n	2.085.972,77
Atxikipenaren erregularizazioa	1.018.148,78
Amortizazioaren erregularizazioa	-636.771,48
Ibilgetu material doitua 2018.12.31n	2.467.350,07

2.3) Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena

Partzuergoak kudeaketa jarraituaren printzipioari jarraituz egin ditu 2019ko urteko kontuak, eta kontuan hartuta COVID-19ak eragindako gaur egungo egoera eta hark ekonomian oro har eta erakundean bereziki izan dezakeen eragina. Memoria honen

14. oharrean zehaztu bezala, Partzuergoaren jardueraren jarraitutasuna ez dago arriskuan.

3. OHARRA.- AITORTZEKO ETA BALORATZEKO ARAUAK

Hona hemen ekitaldian aplikatutako erregistro eta balorazio arauak:

a) Ibilgetu materiala

Atxikitako ibilgetua kontabilitate balio garbiaren arabera dago baloratuta. Partzuergoak eskuratutako ibilgetua, hau da, bere aurrekontuaren kargurakoa, aldiz, eskuratze prezioaren edo eraikitze kostuaren arabera baloratzen da.

Beste erakunde batzuen jabetzakoak diren eraikinetako edo instalazioetako obren eragiketak zuzenean ekonomia eta ondareko emaitzen kontura kargatzen dira.

Inoiz ez dira finantza gastuak kapitalizatzen.

Partzuergoari atxikitako eta/edo lagatako ondasunak, halakorik izan denean, erabiltzeko eskualdatu dizkiote Arabako Foru Aldundiak eta Partzuergoko kide diren erakundeek, eta haien gaineko eskubide guztiak sortu dira haren alde, jabetza izan ezik.

Partzuergoak atxikitako ondasunak kontabilizatzen ditu, 21 "Ibilgetu materialak" azpitaldeari dagokion kontuan kargua eginez, eta 1001 "Ondasun eta Eskubideen Ekarpina" kontuan ordainketa eginez.

Kasu bakoitzean aplikatutako amortizazio koefizienteak ondasun motaren eta haren balio bizitzaren arabera dira. Hona hemen koefiziente horiek:

Kontua	Deskribapena	Urteko koefizientea	Balio bizitza (urteak)
211000	-Eraikinak	% 3	33
215000	-Instalazio teknikoak.		
	- Hoditeria eta ponpaketak	% 2 - % 3,33	30 - 50
	- Beste instalazio batzuk	% 6,66	15
214000	-Makinak.	% 25	4
214000	-Tresnak.	% 25	10

216000	-Altzariak.	% 14	7
217000	-Ekipo informatikoak	% 25	4
218000	-Garraio elementuak	% 14	7
219000	-Bestelako ibilgetua	% 14	7

b) Ibilgetu ukiezina

Atxikitako ibilgetua kontabilitate balio garbiaren arabera dago baloratuta. Erakundeak eskuratutako ibilgetua, hau da, bere aurrekontuaren kargurakoa, aldiz, eskuratze prezioaren edo eraikitze kostuaren arabera baloratzen da.

Amortizazioa linealki kalkulatzen da 4 urteko epe batean, % 25eko tasaren arabera.

c) Izakinak

Erregaien, ordezeko piezen, hainbat materialen, bilgarrien eta bulegoko materialen izakinak ez dira kontabilizatu; izan ere, ez da egin horien inbentario fisikorik ekitaldiaren amaieran beren saldoa zuzendu ahal izateko. Gisa horretako eskuratzeak zuzenean kargatzen dira ekonomia eta ondareko emaitzen kontura ("Hornidurak" izeneko 628 kontuaren bidez), beste hornikuntza batzuen erosketa gisa kontabilizatu eta 612 kontuaren ("Beste hornikuntza batzuen izakinen aldakuntza") bidez ekitaldiaren amaieran erregularizatu beharrean; izan ere, ez dira oso esanguratsuak.

d) Transferentziak eta dirulaguntzak

Gastu arruntak finantzatzeko dirulaguntzak honi egotziko zaizkio: dirulaguntzen bidez finantzatzen diren gastuak zein ekitalditan sortzen diren, horren emaitzari. Ostera, aktiboak eskuratzeko kapital dirulaguntzak ekitaldi bakoitzaren emaitzari egotziko zaizkio, ondasunaren balio bizitzaren proportzioan, elementu horiek amortizatzeko hornidurarako erabili den metodo bera aplikatuz.

e) Hartzekodunak

Epe luzerako eta laburrerako zorrak beren ordainketa balioaren arabera agertzen dira kontabilizatuta.

f) Diru sarrerak eta gastuak

Diru sarrerak eta gastuak horiek ordezkatzan dituzten ondasunen eta zerbitzuen korrante errealaren arabera aitortzen dira, betiere zuhurtasun printzipioaren premisarekin.

I) Hornidurak eta kontingentziak

Zordunen saldoak beharrezkoak diren balorazio zuzenketen balio izendun garbiaren arabera adierazten dira, zuhurtziazko irizpideak aplikatuz. Irizpide orokor gisa, itxitako ekitaldietan kobratzeko geratzen diren diru sarreraren % 100 hornitzea erabaki da, dirulaguntzak edo jasotako transferentziak ez direnak.

4. OHARRA .- IBILGETU MATERIALA

Hona hemen ibilgetu materiala eratzen duten partiden xehetasuna eta mugimenduak:

Kontua	Deskribapena	Hasierako saldoa	Altak	Bajak	Intsuldaketak	Azken saldoa
215000	-Instalazio teknikoak.	3.557.101,96	196.997,78			3.754.099,74
216000	-Altzariak.	-	428,00			428,00
217000	-Ekipo informatikoak	-	944,20			944,20
	Guztira	3.557.101,96	198.369,98	-	-	3.755.471,94

Ibilgetu materialaren amortizazioa, 79.456,16 euroko zenbatekoa duena, egin da eta 681 kontuan, "Ibilgetu materiala amortizatze hornidura" izenekoan, bildu da.

Kontua	Hasierako saldoa	Altak	Bajak	Azken saldoa
-Instalazio teknikoen amortizazio metatua	-1.089.751,89	-79.456,16		-1.169.208,05
-Altzarien amortizazio metatua	-			-
-Ekipo informatikoen amortizazio metatua	-			-
Guztira	-1.089.751,89	-79.456,16	-	-1.169.208,05

Ekitaldiaren itxieran erabat amortizatuta eta, horrenbestez, zero kontabilitate balioa dutela, agertzen dira honako elementu hauek. Beren eskuratze balioaren eta kontuaren arabera adierazi ditugu:

Kontua	Elementu kop.	Eskuratze edo atxikitze balioa
- Instalazio teknikoak	3	93.639,83
GUZTIRA	3	93.639,83

5. OHARRA.- IBILGETU UKIEZINA

Ibilgetu ukiezinaren mugimenduak eta 2019ko amortizazio metatua erantsitako moduan xehatzen dira.

KONTUA	Hasierako saldoa	Altak	Bajak	Intsuldaketak	Azken saldoa
209 - Bestelako ibilgetu ukiezina	-	17.897,72			17.897,72
GUZTIRA	-	17.897,72	-	-	17.897,72

Ekitaldiko alta bat dator "Instalazioak Urbideko gainbegiraketa sisteman integratzeko proiektuaren idazketarekin". Proiektu hori Ingurumen eta Hirigintza Saileko zerbitzuak kontratatu eta gauzatu du, Partzuergoak ez duelako baliabide tekniko, material eta giza baliabide egokirik.

Partzuergoak inbertsio hori erregistratu du zordunketa bat eginez "Ibilgetu ukiezinak" 20 azpitaldeko kontuan, eta ordainketa egin da "Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko dirulaguntzak" izeneko 130 kontuan, ekitaldian emandako dirulaguntza handiago gisa sartu duelako Arabako Foru Aldundiak.

2019ko ekitaldian ez da zenbatekorik erregistratu ibilgetu ukiezina amortizatzeko zuzkidura kontzeptupean.

Kontua	Hasierako saldoa	Altak	Bajak	Azken saldoa
-Bestelako ibilg. ukiezin. amortiz. metat.	-			-
GUZTIRA	-	-	-	-

6. OHARRA.- ONDARE GARBIA

Ondare garbian 2019ko ekitaldian erregistratutako mugimenduak honela xehatzen dira:

Ondasunen eta eskubideen ekarpenak: Arabako Foru Aldundiak atxikitako ondasun guztiek osatzen dute saldoa.

KONTUA	Hasierako saldoa	Altak	Bajak	Intsuldaketak	Azken saldoa
-Ondasunen eta eskubideen ekarpena	3.557.101,96				3.557.101,96
-Aurreko ekitaldietako emaitzak	-552.328,77			-80.402,68	-632.731,45
-Ekitaldiko emaitza	-80.402,68	-		80.402,68	-28.741,52

-Ibilg. ez finantz. finantz. dirulag.	-	28.741,52			79.996,43
KONTABILITATE BALIO GARBIA	2.924.370,51	51.254,91	-	-	2.975.625,42

7.- OHARRA- ZORDUNAK

a) 430 "Aitortutako Eskubideen Zordunak" kontua, ekitaldi honetakoa.

Ekitaldiaren amaieran, Partzuergoak uneko ekitaldiko 20.644,80 euroko saldo zorduna aurkeztu du (16.693,20 euro 2018ko ekitaldia ixtean).

b) 431 "Aitortutako Eskubideen Zordunak" kontua, aurreko ekitaldietakoa.

2018ko ekitaldiaren hasieran, aurreko ekitaldietako zordunen saldo bat egon da, 16.693,20 eurokoa, eta guztiz kobratu da 2019ko ekitaldian.

Hona hemen kobrantza zalantzarikoko saldoetarako horniduran izandako aldakuntza 2019ko ekitaldian:

	Zenbatekoa
2017ko abenduaren 31ko saldoa	7.269,30
Ekitaldiko itzulketa	-3.096,00
2018ko abenduaren 31ko saldoa	4.173,30
Ekitaldiko itzulketa	-4.173,30
2019ko abenduaren 31ko saldoa	0,00

c) Hona hemen zordunen epigrafeko Kobratu beharreko beste kontu batzuk partida osatzen duten saldoen eta 2018ko eta 2019ko abenduaren 31n kobratu beharreko beste kontu batzuen banakapena:

Azalpena	2019	2018
Jasanarazitako BEZarengatik zordun direnak	2.064,48	1.669,32
Sortutako sarrerengatik, zerbitzuak emateagatik eta bestelakoengatik zordun direnak	8.253,95	27.407,52
GUZTIRA	10.318,43	29.076,84

BEZarengatik zordun direnen kontua, 2.064,48 eurokoa (1.669,32 eurokoa 2018an), 2018 eta 2019ko abenduaren 31n kobratzeke zeuden fakturetan jasanarazitako BEZari dagokio. Zerga oinarria uneko ekitaldian aitortutako eskubideengatik zordunen kontuan dago erregistratuta.

Sortutako sarrerengatik zordunen kontuan jaso dira zerbitzuak emateagatik ekitaldiko abenduan sortutako eta hurrengo ekitaldiko urtarrilera arte fakturatzeko ez diren sarrerak. Ekitaldiaren amaieran, zenbatekoa 8.253,45 euro da (6.825,88 euro 2018an, fakturatzeko zeuden zerbitzuak emateagatik eta 20.581,64 euro ezbeharragatik aseguru baten kalte ordainari dagozkionak, zeinaren gastua 2018an egin baitzen).

d) 47 "Erakunde publiko zordunak" azpitaldea

Epigrafe honetan jasotzen da Foru Ogasunarekiko saldo zorduna, balio erantsiaren gaineko zergatik eratorria. Ekitaldiaren itxieran, saldoa 46.335,89 euro zen (18.346,59 euro 2018ko ekitaldiaren itxieran).

8. OHARRA.- HARTZEKODUNAK

a) 400 "Aitortutako Obligazioen Hartzekodunak" kontua, ekitaldi honetakoa

Ekitaldiaren itxieran ordaintzeko dauden aurrekontuko hartzekodunak daude, 86.636,27 euroko zenbatekoa dutenak (51.782,75 euro 2018ko ekitaldiaren itxieran).

b) Hona hemen hartzekodunen epigrafeko Ordaindu beharreko beste kontu batzuk partida osatzen duten eta 2018 eta 2019ko abenduaren 31 ordaindu beharreko beste kontu batzuetako saldoen banakapena:

Azalpena	2019	2018
Jasandako BEZarengatik hartzekodunak	18.067,81	4.691,40
Aurrekontu gastuak periodifikatzeagatik hartzekodunak	2.410,57	4.755,71
GUZTIRA	20.478,38	9.447,11

BEZarengatik hartzekodunen kontua 2018 eta 2019ko abenduaren 31n ordaintzeke zeuden fakturetan jasandako BEZari dagokio. Zerga oinarria uneko ekitaldiko eskubide aitortuengatik hartzekodunen kontuan dago erregistratuta.

c) Hona hemen 47 “Erakunde publiko hartzekodunak” azpitaldearen banakapena:

Azalpena	2019	2018
PFEZagatik hartzekodun den OP	564,48	-
Gizarte Segurantz hartzekoduna	117,08	66,84
GUZTIRA	681,56	66,84

9. OHARRA.- PERIODIFIKATZEAGATIKO DOIKUNTZAK

480 Gastu aurreratuak kontuak, ekitaldiaren itxiera datan, 3.521,18 euroko saldo zorduna dauka, 2020ko ekitaldirako kontratatu eta 2019an aurrerapen gisa ordaindutako aseguruaren primaren zati bati dagokiona. Ekitaldi horretako ekonomia eta ondareko emaitzan aitortuko dira.

2018an aurrerapen gisa ordaindutako prima 3.242,80 eurokoa izan da, eta horren gastua 2019ko ekitaldiko ekonomia eta ondareko emaitzaren kontuan aitortu da.

10. OHARRA - FINANTZA KONTUAK.

57 “Eskudirua eta pareko beste aktibo likido batzuk” azpitaldea. Diruzaintzaren hasierako saldoa, 2019ko urtarrilaren 1ean, 455.131,01 eurokoa da. Ekitaldiko mugimenduen fluxuak sortutako azken saldoa, berriz, 434.166,90 eurokoa da.

11. OHARRA – DIRU SARRERAK ETA GASTUAK.

a) Langile gastuak

Kontzeptu hori dela eta ekitaldian zehar izandako gastuak honela banaka daitezke.

Azalpena	2019	2018
640 Soldatak eta lansariak	17.242,75	12.534,21
641 Kalte ordainak	577,80	756,98
642 Gizarte Segurantz	5.989,12	4.097,22
GUZTIRA	23.809,67	17.388,41

Batzar Orokorrak, 2019ko apirilaren 9an egindako bileran, erabaki zuen aldatzea Partzuergoak zuzenean kontratatutako pertsona bakarraren kontratu harremana, eta lanaldi osora luzatu zitzaion lanaldia 2019ko uztailaren 1etik aurrera.

Bestalde, Batzar Orokorrak 2019ko ekainaren 27an egindako bileran, erabaki zuen Ingurumen eta Hirigintza Saileko legelari batek egingo zituela idazkari lanak eta Arabako Foru Aldundiko Kontuhartzailetzarekiko koordinazioa. Pertsona horren soldata osoa Arabako Foru Aldundiak ordaintzen duenez eta eginkizun horietan ematen duen lanaldiaren ehunekoa ez denez kuantitatiboki garrantzitsua, Partzuergoak 2019an ez du erregistratu ez ondare gasturik ez aurrekontu gasturik kontzeptu hori dela eta.

b) Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.

Partzuergoko kide diren erakundeei emandako dirulaguntzak eta transferentziak jasotzen dira. Hona hemen haien xehetasuna, ekitaldiaren itxieran:

Azalpena	2019	2018
Kapital transferentzia	-	29.236,68
Berantevillako ABri – HUA obra	-	
GUZTIRA	-	29.236,68

c) Transferentziak eta jasotako dirulaguntzak.

Kontu honetan, Partzuergoaren aurrekontu defizita berdintzeko Arabako Foru Aldundiarengandik jasotako transferentziak jasotzen dira, honela xehatuta:

42. JASOTAKO TRANSFERENTZIAK	2019	2018
Arabako Foru Aldundiaren transferentzia arruntak	62.098,71	0,00
GUZTIRA	62.098,71	0,00

Kapitulu honetan, 35.727,18 euroko sarreraren itzulketa erregistratu da, ekitaldiko aurrekontu defizita konpentsatzeko kobratutako gehiegizko dirulaguntzari dagokiona. Arabako Foru Aldundiak hurrengo ekitaldian egin beharreko ekarpenekin konpentsatuko da. Saldo hartzekodun hori Balantzeko pasiboan

islatzen da, Epe laburreko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin epigrafean.

Inbertsioak finantzatzeko jasotako kapitaleko dirulaguntzak osorik sartu dira 130 "Aktibo ez finantzarioak finantzatzeko dirulaguntzak" kontura; hona hemen 2019ko ekitaldiko xehetasunak:

130 kontuaren hasierako saldoa	0,00
Partzuergoak 2019an eskuratutako aktibo finkoak	62.098,71
Instalazioak Urbide gainbegiraketa sisteman integratzeko proiektua idaztea (5. oharra)	17.897,72
130 kontuaren amaierako saldoa	79.996,43

d) Foru sozietate publikoekin egin diren beste eragiketa komertzial batzuk;

2019ko eta 2018ko ekitaldietan ez da transakzio komertzialik egin ezein foru sozietate publikorekin.

12. OHARRA.- ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA. ESLEIPEN PROZEDURAK

2019ko ekitaldian, erakundeak ez du lizitazio prozesurik egin kontratu txikitzat jotzen direnak baino handiagoak egiteko.

13. OHARRA.- INGURUMEN INFORMAZIOA.

Ez dago dagozkion aurreikuspenen bidez estali beharreko ingurumen arloko kosturik. Era berean, ez dago ingurumenaren babesarekin eta hobekuntzarekin lotutako gertakizunik irekita, eta, bestalde, ez dago ingurumenaren arloko etorkizuneko inbertsioetarako konpromisorik, ez eta ingurumenarekin lotutako erantzukizunik eta oraindik jaso gabeko konpentsaziorik ere. Partzuergoak ez du ingurumenaren arloko dirulaguntzarik jaso, ez eta ingurumenarekin lotutako jardueren ondoriozko sarrerarik ere.

14. OHARRA.- ITXIERAZ GEROZTIKO GERTAKIZUNAK.

2020an, COVID-19a osasun larrialdi bihurtu da mundu osoan. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) pandemiatzat jo zuen, eta neurri zorrotzak hartu behar izan dira sortutako krisia kudeatzeko; esate baterako, osasun arloko alarma egoera deklaratzeko martxoaren 14an. Hala ere, neurri horiek galera handiak eragingo dituzte, eta kalteak ekarriko dizkiete sektore publikoko eta pribatuko erakundeei eta langileei.

Partzuergoko lehendakariak adierazi duenez, zaila bada ere urteko kontu hauek egin diren unean aurreikustea zer nolako ondorioak izango dituen pandemia honek Partzuergoaren etorkizuneko jardueran, aurreikusi da ondorioak ez direla nabariak izango Partzuergoaren helburu soziala zein den ikusita, alegia, gaur egun, uraren goi horniduraren zerbitzua ematea partzuergoko kide diren erakundeei industriak eta merkataritzak eragin txikia duten zonetan. Hain zuzen, gaur egun arte ez da alde esanguratsurik ikusi aurreko ekitaldiko tarte berberari dagokion fakturazioarekin alderatuta. Era berean, gaur egun eutsi egiten zaio 2020ko ekitaldirako eta hurrengoetarako Arabako Foru Aldundiak egin beharreko ekarpenari, bien artean izenpetutako hitzarmenaren arabera.

15. OHARRA.- OBLIGAZIOAK ORDAINTEKO EPEA.

Jarraian xehatu da 2019ko ekitaldian ordaintzeko batez besteko aldiari buruzko hiru hilabeterik behingo informazioa, bai eta 1040/2017 Errege Dekretuan ezarritako kalkulu irizpideen arabera Partzuergoak 2019ko abenduaren 31n ordaintzeke dituen eragiketei buruzkoa ere (1040/2017 Errege Dekretua, abenduaren 22koa, zeinaren bidez aldatzen baita herri administrazioen hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia kalkulatzeko metodologia eta aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitako finantzaketa araubideen baliabideak atxikitze baldintzak eta prozedura garatzen dituen uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretua).

2019ko ekitaldia:

Aldian egindako ordainketa k	Ordaintzeko batez besteko epea (egun)	Ordaintzeko legezko aldiaren barruan		Ordaintzeko legezko alditik kanpo	
		Ordainketa kop.	Zenbatekoa, guztira	Ordainketa kop.	Zenbatekoa, guztira
1. hiruhil.	25,80	84	45.639,65	1	9.075,00
2. hiruhil.	29,47	79	101.442,83	0	0,00
3. hiruhil.	9,71	89	78.412,92	0	0,00
	15,16	103	154.715,83	0	0,00
Aldiaren amaieran egiteke dauden eragiketak	Egiteke dauden ordainketen batez besteko aldia (egun)	Ordaintzeko legezko aldiaren barruan		Ordaintzeko legezko alditik kanpo	
		Ordainketa kop. Erag.	Zenbatekoa, guztira	Erag. kop.	Zenbatekoa, guztira
	8,75	21	104.105,01	0	0

2018ko ekitaldia:

Aldian egindako ordainketa k	Ordaintzeko batez besteko epea (egun)	Ordaintzeko legezko aldiaren barruan		Ordaintzeko legezko alditik kanpo	
		Ordainketa kop.	Zenbatekoa, guztira	Ordainketa kop.	Zenbatekoa, guztira
1. hiruhil.	5,45	76	29,248,68	0,00	0,00
2. hiruhil.	8,22	78	57,746,50	0,00	0,00
3. hiruhil.	11,12	75	60,959,45	0,00	0,00
	7,09	88	102.802,71	0,00	0,00
Aldiaren amaieran egiteke dauden eragiketak	Egiteke dauden ordainketen batez besteko aldia (egun)	Ordaintzeko legezko aldiaren barruan		Ordaintzeko legezko alditik kanpo	
		Ordainketa kop. Erag.	Zenbatekoa, guztira	Erag. kop.	Zenbatekoa, guztira
	23,18	10	18.162,47	1	9.075,00

16. OHARRA.- EKONOMIA ETA ONDAREKO EMAITZAREN ETA AURREKONTU EMAITZAREN ARTEKO BERDINKATZEA.

EKONOMIA ETA ONDAREKO EMAITZAREN ETA AURREKONTU EMAITZAREN ARTEKO BERDINKATZEA	2019ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubide garbi guztiak aurrekontu arruntean	343.743,55

- Aitortutako obligazioak aurrekontu arruntean	416.943,43
- Likidazio kontuaren arabera emaitza	-73.199,88
GASTUAK	
+ 6. kapitulua: "Inbertsio errealak"	198.369,98
+ 8. kapitulua: "Finantza aktiboak"	-
+ 9. kapitulua: "Finantza pasiboak"	-
Aurrekontu gastuak (eragiketa arruntak ez direnak)	198.369,98
DIRU SARRERAK	
- 6. kapitulua: "Inbertsio errealak besterentzea"	-
- 4. kapitulua: inbertsio errealak finantzatu dituzten "Transferentzia arruntak"	62.098,71
- 8. kapitulua: "Finantza aktiboak"	-
- 9. kapitulua: "Finantza pasiboak"	-
Aurrekontuko sarrerak (eragiketa arruntak ez direnak)	
Aurrekontuz kanpoko gastuak	
- Ekitaldiko amortizazioa	79.456,16
- Aurrekontu gastuak periodifikatzeagatik hartzekodunak direnen aldakuntza	-2.345,14
- Gastu aurreratuen aldakuntza	-278,38
Aurrekontuz kanpoko sarrerak	
+ Emaizten kontura intsuldatutako ibilg. ez finantzarioetarako dirulaguntzak	-
+ Kaudimengabeziatarako hornidura – Horniduraren itzulketa. 18	4.173,30
+ Sortutako sarrerengatik zordun direnen aldakuntza	-19.153,57
Emaizta, kontabilitate orokor publikoaren arabera	-28.741,52

Ribabellosa, 2020ko ekainaren 19a

LEHENDAKARIA

Josean Galera Carrillo